

Ikasturtea hasiko da gaur lehen protesta ekintza batzuekin

L.E. /

Nafarroa Beherean, Bastidan, eta Zuberoako Sohütan ikasturte honen hasierarekin batera protestak sortu dira. Lanpostuak eta gela falta dira aurtan ere ohiturazko aitzakiak horrelako mugimenduentzat.

Bastidako eskolan, hirugarren gela bat ireki nahian, herriko hautetsiak eta gurasoak mobilizatu egin dira. Udaberrian eskatu gela berriarentzat haur aski badiela eta herriak utzitakoa gela egokia dela, baina Akademiako Inspektzioak ez duelako oraindik erantzunik eman, gaur jendeak protesta egingo du. Gurasoek gela berria okupatuko dute, eta hala beharrez, beraiek hasiko irakaskuntza, 'eskola basa' bat bideratuz, eta jakin arazi dutenez «horrela segiko dugu eskatu gela lortu arte». Sohütan, Zuberoako Lizeoan, iaz bezala greban hasi dira ATOS langileak, administrazio eta enplegatu postuetan daudenak. Bi lanpostu eskatzen dituzte, eta ez lortzeak arazoak sortuko ditu hasiera egun honetan.

Dietetika eta Nutrizio ikasketak beharrezko ofizialtasunaren zain


Hilabete honetan ez legezko proposamena aurkeztuko da hori lortzeko

Dietetika eta Nutrizio ikasketen titulazioa Madrileko Ministro Kontseiluak laster onestea espero da. Hilabete honetan aurkeztuko da ez legezko proposamena ikasketak onartzeko, atzo EHUko zenbait kidek nutrizioari buruzko liburu baten aurkezpenean esan zuten.

LUIS KARLOS GARCIA / GASTEIZ

Espainiako Unibertsitateen Kontseiluak Dietetika eta Nutrizio ikasketen titulazioaren irizpideak onetsi baditu ere, Ministro Kontseiluaren onespina falta da oraindik orain. Horrek izaera ofiziala emango lieke ikasketa hauei eta Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) agintariek espero dute luze baino lehen aipatu ofizialtasuna lortzea, horretarako irailean bertan Cataluniako talde politikoek ez legezko proposamena aurkeztuko bait dute Madrileko Kongresuan.

EHU izan zen Dietetika eta Nutrizio ikasketen «titulazioa ezarri zuen aurrea», adierazi zuen atzo



Janari egokia nutrizio onari loturik dago.


Gasteizen Ramon Diaz de Durana Arabako kanpuseko errektoreordeak. «Unibertsitateko Ikasketa-Planen Erreforma, Unibertsitateen Kontseiluak onetsi zituen gure planteamenduak», esan zuen eta dagoneko diplomatura hau duen Nafarroaz gain, aurki Cordobak eta Barcelonak bide berdinari jarrai diezaioketela aipatu zuen.

ENPLEGUAK LORTZEKO OZTOPO

Atzo Gasteizen 'Nutricion y Tecnologia de los Alimentos' liburuak aurkeztu zuen Alfredo Martinez katedratikoak Nutrizio eta Giza Elikadura ikasketak enplegua lortzeko dituen aukerak azpimarratu zituen. «Iragan ekainean atera zen lehendabiziko promozioan, ikasleen % 30 edo 40 batek enplegua lortu du», jakin erazi zuen Martinezek. Noski, ikasketei falta zaien ofizialtasuna dela medio, ez dute zentru ofizialetan lan egiten, «enpresa eta ospitale pribatuetan baizik».

✓ Dietetika eta Nutrizioa diplomaturak irtenbide ona du. Iragan ekainean atera zen lehen promozioa ikasleen % 30—40k aurkitu du lana.

Gasteizen ia hasi berriak diren ikasketetarako liburu baliagarria izatea espero du Martinezek, iaz EHUren Udako Ikastaroetatik ateratako materialeaz osatuta dagoena. «Elikagaien Zientzia eta Teknologiaren lizentziaturarako nahiz Nutrizio eta Giza Elikaduraren diplomaturako liburuak lagungarri izatea nahi dut», azaldu zuen bildumaren zuzendariak. Liburuari dagokionez, nutrizio eta metabolismoak, elikagaien analisi bromatologikoa eta okela, arraultz, arrain edo ogiaren deskribapena agertzen du.



GERNIKAKO AZOKA

Jende asko baina salmenta gutxi atzo

MARIBI KANPILLO / GERNIKA

Jende asko inguratu zen atzokoan Gernikako azokara eta generoa ere ugari agertu zen. Hala ere, salmenta gutxi izan zen, ez aurreko asteetan adina behintzat. Aipagarrienak piper berde eta leka edo bainena izan zen, sasoi honetan ohi den bezala, tomate


garaia izan arren, horren salmenta urria izan zen. Pipar sikua ez da oraindik agertu azokan eta ez omen da agertuko urria arte behintzat. Piper lodiarri dagokionez, azkenekoak gelditzen dira eta salneurria ere igo egin dute, merke ibili ondoren.

Barazkiei dagokionez honako hauek izan ziren salneurriak: Piper

berdea, 25-35 pezetan dozena; piper lodia, 350-400; babarrunak (beltza), 600-630; babarrun gorria, 700-800; babarrun tolosarra edo pinta, 700; babarrun txuria, 400; babarruna lekan, 350; bainak (kalitate eta motaren arabera), 100-250; porrua, (kalitatearen arabera), 100-140; tomate txiki heldua, 50; tomatea (bestek), 75-125; letxuga, 50-75; berenjena, 100; berakatzak, 250 dozena; kalabazina, 40 bakoitza; azelgak, 50; kipula gorriak, 600 dozena; patata handia, hirurogei; patata txikia, berrogei.

Bertako produktuak: maderiak, 150; sagarrak, 200; preskuak (melokotoi mota txikia), 100; okeranak, 100; melokotoia, 300; urrak, 500. Arrautzak, 140-190; gazta, 1000. Hegaztiak: indioilar gorria, 850 bakoitza, beltza, 1000; oilandak, 800; oilasko txikia, 220; txitak, 70; galeperra, 200.

Landareak: porrua eta aza, 300; zientoa; bruselako azak, 600; azalora, 500; azelga, letxuga eta eskarola, 400.



**XANTI
BELAR
"BEGI"**

*Kukua jo ta jo ari da kotoizko kantua
paisaiaren zazpi muiño orbeltsutan
Bizitza hain maite dugunoi berrir
Lurreko egunak maitatu eraziz*

(B. Gandiaga)

**SANTUTXUKO
BERTSOLARI ESKOLA**

HILDAKOAK



BIZKAIA

BILBO

Rosario Arrien Apraiz, 78 urte.
Juan Carlos Sedano Gomez, 31 urte.

Juana Muerza Ugarte.

Maria Angeles Camaras Bringas, 72 urte.

Maria Teresa Miranda Maldonado, 59 urte.

Jose Maria Iturriaga Landaia, 76 urte.

Fernando Leal Valbuena, 43 urte.

ALGORTA

Luis Alaba Urberuaga, 63 urte.

BARAKALDO

Eusebio Bravo Oller, 87 urte.

DURANGO

Fernando Revuelta Manuel, 49 urte.

Matias Barrutieta Berrio, 61 urte.

EREÑO

Juana Castaños Lekerika, 89 urte.

IGORRE

Jose Urkiaga Berrojalbiz, 66 urte.

PORTUGALETE

Daria Camara Camara, 90 urte.

SANTURTZI

Manuel Cañoto Lopez, 73 urte.

Manuel Hoyos Amenabar, 86 urte.

SOMORROSTRO

Begoña Arze Peña, 46 urte.

GIPUZKOA

DONOSTIA

Maria del Pilar Claver Samitier, 92 urte.

Maria Etxeberria Mendizabal, 95 urte.

Pilar Elorza Foronda, 72 urte.

ERRETERIA

Fidel Ignacio Roperio, 54 urte.

Maria Goenaga Aranburu, 70 urte.

IRUN

Jose Manuel Rodriguez Huidobro, 42 urte.

Francisco Javier Costa Martinez, 27 urte.

Lucia Perez Martinez, 90 urte.

TOLOSA

Jose Domingo Garmendia Zunzu-

negi.

USURBIL

Estefania Alsua Lertxundi, 93 urte.

ARABA

GASTEIZ

Juan Aginaga Blanco, 62 urte.

Marcelino Segura Uriarte, 53 urte.

Angel Ocio Otxaran, 81 urte.

POBES

Feliciano Calderon Huelga, 84 urte.

NAFARROA

IRUÑA

Eduardo Orkoien Romeo, 28 urte.

Julian Petri Arre, 71 urte.

Aldegunda Gonzalez Sanchez, 80 urte.

Juan Ruiz Urea, 55 urte.

ARRONITZ

Francisco Javier Mauleon Ganuza, 54 urte.

CINTRUENIGO

Emilio Sarasa Bermejo, 68 urte.

IRURITA

Agustina Etxenike Elizainzin, 82 urte.

LIZARRA

Tomas Azkona Sanz, 94 urte.

Antonio Orella Fernandez, 74 urte.

UZTEGI

Martin Jose Saralegi Arraztio, 88 urte.

LAPURDI

BAIONA

Andre Laterrade, 66 urte.

Francette Goikoetxea-Montangon, 54 urte.

Andre Bouchetel, 94 urte.

BOKALE

Martin Rekalt, 89 urte.

DONIBANE LOHIZUNE

Henri Ameztol.

LEHUNZE

Marie Doihambure-Gamoy, 98 urte.

MIARRITZE

Renee Etxart-Labarrere, 80 urte.

UZTARITZE

Pierre Etxeberri, 69 urte.

ESKELAK HARTZEN DIRA: ARRATSALDEKO
4ak ARTE: (943) 46 90 22 4etatik 7etara: (943) 37 15 45